


Gainbehera dator dena



Gainbehera dator dena

Jatorrizko izenburua: *Things Fall Apart*

Egilea: Chinua Achebe

Itzultzailea: Alberto Martínez de la Cuadra

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Elkar&Alberdania

MIKEL GARMENDIA

Alde askotatik dugu harri pitxi bat eleberrri hau, Chinua Achebe idazle nigeriarrek 1958 urtean argitara emana eta orain euskaraz heldu zaiguna. Oso eskertzekoak ditugu, lehenik eta behin, Alberto Martínez de la Cuadra itzultzaileak hain ezezaguna zaigun Nigerian barnertzeko ematen dizkigun bi tresna: batetik, hitzaurrean berean kokatuko gara bai Nigeriaren idiosinkrasian, bai eta idazlea bera eleberrri hau idaztera bultzatutako arrazoietan eta idazlearen beraren ibilbidean ere. Interesgarria, alde horretatik, Chinua Achebek egindako hautua: ingelesez idaztea erabaki zuen –kolonizatzailen hizkuntzan– baina, hori bai, ingelesean Ibo hizkuntzako hainbat eta hainbat esamolde, hitz eta egitura txertatuz, hizkuntzaren erabilera politikoa gauzatuz, alegia. Eta horixe dugu, hain zuzen, Martínez de la Cuadrak eskaintzen digun bigarren tresna: eleberrian zehar txertatutako Ibo hizkuntzako hitz eta esamoldeen glosategi bat aurkituko dugu eleberria arazorik gabe irakurri ahal izateko.

Garrantzi handia du Ibo kulturean ahozko tradizioak eta horren barruan baita animaliei buruzko sineste eta kontakizunen ere. Hori dena jasoko digu Achebek bere eleberrian. Ibo herriaren bizitza ulertzeko modua, azken finean.

Iboko Umuofia izeneko herrirka batean gertatzen da eleberriko kontakizuna. Bertakoa da Okonkwo, eleberriko protagonista, obsesio bakarra duena: tribuko eta inguruko komunitateetako gerlaririk errespetatuenetakoa bihurtzea. Badira bi gauza inolaz ere eraman ezin dituenak, bere aita izandakoaren ezaugarriak, hain zuzen: alferkeria eta otzantasuna. Lerroz lerro betetzen ditu tradizioak; hainbeste, non etxean hartutako semeorde bat hiltzeko agintzen diotenean zalantzarik gabe hilko baitu. Herritik kanpo eman beharko ditu zazpi urte eta itzultzean sartua ikusiko du jadanik ingelesez kolonizazioa bere herrian. Halaxe topatuko ditu bekoz beko jarriak “mundu zibilizatua” eta “basatikeria”, beti ere mendebaldeko ikuspegitik egindako banaketan. Hona nola mintzo zaigun Achebe bera karia honetara: “Benetan pozik nengoke nire eleberriek (iraganean kokatzen ditudanak batez ere) besterik gabe nire irakurle afrikarrei erakutsiko balie haien iragana, akatsak akats, ez zela soilik izan basakeriazko gau luze bat, zeinetik europarrek salbatu dituzten, Jainkoaren izenean ekinez”.

Egundoko ekarpen polita, beraz, Alberto Martínez de la Cuadraren itzulpen zaindu eta txukun hau, gurea bezala batez ere ahozkotasunean oinarritutako kultura eta mundu-ikuspegi bat, Ibo herriarena, ezagutzeko eta Afrika afrikarren begietatik ikusten hasteko.